

ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KONTRABAXUA 2020ko OTSAILAren 21a

2020ko OTSAILAren 21ean Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **kontrabaxu** espezialitatean. Pierre E. de Maistre irakasleak eta Musikeneko kontrabaxu ikasleek parte hartuko dute bertan.

Nori zuzenduak?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten kontrabaxu ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten kontrabaxu ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldian parte hartzeko aurrez erreserba egin beharko da gure webgunea eskura duzuen **izen-emate orriaren** bitartez

Zein da jardunaldien helburua?

- Goi Mailako ikasketak egiteko interesa duten ikasleei eta bertaratzen diren irakasleei sarrera probei buruzko informazioa ematea, bertan eskatuko den maila eta gomendatzen den errepertorioa barne.
- Ikaslearen mailaren balorazioa egitea, proposatzen dituen obrak entzunez.
- Musikenen bertako ikasleekin egiten den lana erakustea.

Lan-egitasmoa

9.00-9.45: Ate Irekien jardunaldiaren aurkezpena.

Kontrabaxu espezialitatearen ikasketa-planari buruzko informazioa. Osatzen duten irakasgaiei buruzko azalpena eta irakasleak aurkeztea. Sarrera proben azalpena.

10.00-11.00: Pierre Emmanuel de Maistre irakasleak Musikeneko ikasleei eskola irekiak.

11.00-13.00: Espezialitate irakasleak eskola irekiak emango ditu ikasle aktiboentzat.

13.00-13.45: Musikeneko ikasleen entzunaldia

13.45: Jardunaldiaren amaiera.

Non egingo den

MUSIKENE Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: info@musikene.eus

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Hari instrumentuen Departamentu Buruarekin: Marta Moll
mmoll@musikene.eus